

OSTEGUNA

2023/09/21
11. urtea, 1.842. zenbakia
107.6 fm
Ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 90 €

Eskualdeko hiru herritan, azoka bereziak

Alegian, Asteasun eta Goiatzen izango dira azokak igandean, askotariko postuekin // **3**



Urkizuko Dama Iturri ingurua auzolanean txukundu zuten pasa den urteko udan. ATARIA

Auzolanaz hausnartu eta auzolana eragiteko

Tolosaldeko eragileekin auzolanaren iraganaz, orainaz eta etorkizunaz hausnartzeko saioak egin ostean, 'Auzolangintza' dokumentala eta gida praktikoa ondu dute; eskualdetik harago zabaltzea da helburua // **4-5**

«Sufrituta, baina iritsi nintzen helmugara»

PATXI PLAZAOLA
TXIRRINDULARIA

770 kilometro eta 15.000 metro aldapa gora duen Badlands proba egin berri du orendaindarrak // **7**

Elkarretaratzera deitu dute Adunan, lan istripua salatzen

Sagar biltzen ari zela 35 urteko emakumea hil zen herenegun traktoreak harrapatuta; lehen eguna zuten sagardogileek sagarrak biltzen // **2**

Mondeju & Ardo
AZOKA
Irailaren 30a, larunbata
Amezketako plazan

11,00-15.00
10 mondeju postu eta 7 ardo upategien azoka

12,00
Mondeju egilei esker ona eta enbaxadore izendapena

14,00
Aralareko ardi gisatua (Loidi baserria eta Lizeaga baserria) dastaketa eta Oteiza Goikoa gazta

Egunean zehar
Garai bateko haur jolasak frontoi zaharrean Mondeju tailerra zuzenean

Leguntzailen

Logoak: Ardurazko Erabilera, Telerikioa, Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU, Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, GASTO AURKARITZA, GASTO AURKARITZA

Elkarretaratzea egingo dute bihar Adunan, lan istripua salatzeko

LAB, ESK, STEILAS, EHNE eta Hiru sindikatuek deituta egingo dute elkarretaratzea; 35 urteko emakumea da sagar biltzen ari zela traktoreak harrapatuta hildako langilea

Jon Miranda Aduna

Goiburu auzoko sagasti batean lan istripua gertatu zen herenegun. Atoidun traktoreak, atzerantz labaindu, eta zuhaitz baten kontra talka egin zuen, langilea bertan harrapatuz. 35 urteko emakumezkoa hil zen ezbeharraren ondorioz. Suhiltzaileak, ertzeak eta osasun-langileak bertaratu zirenerako hilda zegoen langilea. LAB, ESK, STEILAS, EHNE eta Hiru sindikatuek mobilizazioa deitu dute biharko, Adunako plazan, 12:00etan. *Prekarietatea hiltzailea, lan istripu gehiagorik ez!* goiburupen egingo dute elkarretaratzea.

Kristina Rodriguez Adunako alkatearen esanetan ezbeharrak «samin handia» sortu du herrian. Sagardogintzak garrantzi handia du Adunan eta udaletik sagardogileei «babes osoa» emango dietela esan du alkateak. Herenegun bertan, istripua gertatu zen tokira gerturatu ziren udal ordezkariak eta sagardogileei adierazi zieten udaleko baliabideak euren eskura jarriko dituztela egoeraren aurrean. «Badakigu gauzak behar bezala

eginda zeudela», esan du alkateak. Ezbeharra izan zuenean, hildako langilea sagar biltzen ari zen, malda piko batean. Rodriguezek aipatu duenez, lehen

Lehen eguna zuten sagardogileek sagarrak biltzen, eta langintza horretan ari zen hildako langilea

eguna zuten sagardogileek sagarrak biltzen eta langintza horretan ari zen emakumezkoa.

Ertzaintzak ikerketa zabaldu du ezbeharra nola gertatu zen argitzeko, eta Adunako alkateak esan duenez, laguntza osoa eskainiko du udalak ikerketan.

ELKARRETARATZEA, BIHAR

Lan istripua salatzeke mobilizazioa deitu dute LAB, ESK, STEILAS, EHNE eta Hiru sindikatuek biharko Adunan. Herriko plazan egingo dute elkarretaratzea 12:00etan *Prekarietatea hiltzailea, lan istripu gehiagorik ez!* lelopean. LAB sindikatuak egindako kontaketa arabera, 2023an 38 izan dira lan istripuetan hil-

dako langileak. Adunakoarekin batera, herenegun bertan, lan saiotik etxera bueltan *in itinere* istripua izan baitzuen Haurreskolak Partzuergoko langile batek.

Sindikatu abertzaleak Adunako lan istripuari dagokionez salatu du, lehen sektoreko sasoi bilketa lanetan diharduten langileek ez dutela lan osasuneko bermerik izaten: «Ez patronalak ez administrazioak ez dituzte beharrezkoak diren neurriak hartzen, eta gabezia hauen emaitzek eragiten dituzte istripuak». Osalani eta lan ikuskaritzari LABek eskatu dio plangintza espezifikoa egin dezatela langile kolektibo hori artatzeko. «Aldikako lan hauetan ingurunea, makineria eta batzuetan prozesua bera ez ezagutzeak arriskuak biderkatzen ditu. Hala, formakuntza eskura jartzen zaien makineriaren kontrola egingo litza-teke, beste prebentzio neurrien artean, beti ere patronalaren kontura». LAB sindikatuak azkeneko egunotan izandako bi lan heriotzak salatu eta langileen familiakoei, lagunei eta lankideei elkartasuna adierazi die.

Auto klasikoak izango dira ikusgai Tolosan

Erredakzioa Tolosa

Ostiralean abiatuko da San Sebastian Circuit Spirit, auto klasiko bira, eta Gipuzkoan barrena hainbat herritatik igaroko da. Hain justu, etzi, larunbatean Tolosan egingo dute geldialdia, eguerdian Olarraindik sartuta.

Zirkuituaren seigarren edizioan 100 auto klasiko baino gehiagok hartuko dute parte. Tolosara iristean, San Estebango aparka-

lekuan utziko dituzte, eta horietako sei Plaza Zaharrean jarriko dituzte herritarrek bertatik bertara ikus ditzaten.

San Sebastian Circuit Spirit-eko parte hartzaileek Ferialekuan bazkalduko dute. Bazkal ondoren birarekin jarraituko dute, Tolosa erdigunea zeharkatuz. San Frantzisko pasealekua, Nafarroa etorbidea, Santa Klara eta Larramendi zubitik igaroz aterako dira Tolosatik.

Ikastaro sorta aukeran Ibarako kultur etxean

Erredakzioa Ibarra

Ikasturte berrirako ere Ibarako Udalak kultur lantegiak antolatu ditu «herritarrei arte diziplina ezberdinetan murgiltzeko aukera eskaintzeaz gain, kultur arloko ikastaroek ezagutza eta gaitasun ezberdinen garapena ahalbidetzeko».

Ikastaroetan 16 urtetik gorakoei hartu ahaliko dute parte eta izena irailaren 30a bitarte eman beharko da kultur etxean dagoen matrikula orria beteta. Eskolak urrian hasiko dira.

IKASTAROAK

Ehoziak, patchwork... Astearteak (15:30-17:30 eta 17:30-19:30). 111,20.
Aitzariak berritzea. Astelehen eta asteazkenak (18:00-20:00). 221,74.
Pintura. Astearteak eta ostegunak (16:00-20:00). 221,74 euro.
Egur taila. Astearteak eta ostegunak (18:00-20:00). 221,74.
Eskulanak. Astelehenak eta asteazkenak (17:30-19:30). 221,74.
Tai Chi (sakontzea). Astearteak eta ostiralak (09:30-10:30). 111,20.
Tai Chi (hastapena). Astearteak eta ostiralak (10:30-11:30). 111,20 euro.

Hitzaldiak eta irteerak Biodibertsitate Gunean

Erredakzioa Tolosa

Biodibertsitate Gunearen eskutik hitzaldi sorta zabalaz gozatzeko aukera izango da abendura bitarte. Espezie exotiko inbaditzaileen inguruko hitzaldiarekin atzo hasi zen egitaraua, eta abendura bitarte mintegiak, ikastaroak eta irteerak izango dira. Antxon Bandres bidaiarien txokoan egingo dituzte horiek. Irteerak, berriz, Dama Berdea iturritik abiatuta izango dira.

EGITARAUA

Irailak 29, ostirala. *La Recivilizacion* liburuaren aurkezpena, 19:00etan.
Urriak 4, asteazkena. *Ornitologiaren hastapenak (paseriformeak 1)* ikastaroa, 18:00etan.
Urriak 18, asteazkena. *Txingudiko estuarioaren ekosistemak* mintegia, 18:00etan.
Urriak 22, igandea. Txingudiko Paduretara irteera, 09:00etan.
Azaroak 12, igandea. Baso Atlantikoaren ekologia irteera, 09:00etan.

Azaroak 15, asteazkena. *Ornitologiaren hastapenak (paseriformeak 2)* ikastaroa, 18:00etan.
Azaroak 29, asteazkena. *Gipuzkoako anfibioak* 1 mintegia, 18:00etan.
Abenduak 3, igandea. Landa Atlantikoaren ekologia irteera, 09:00etan abiatuta.
Abenduak 3, asteazkena. Tolosaldean harrapatutako fauna basatiaren azterketaren emaitzak mintegia, 18:00etan.

Argazki lehiaketa antolatu dute egutegia egiteko

Erredakzioa Belauntza

Belauntzako Udalak 2024ko egutegia osatzeko argazki lehiaketa antolatu du. Argazkietarako gaia *Nire Belauntza* izango da, eta argazkiak urriaren 20a baino lehen bidali beharko dira *belauntza@udala.eus* helbidera.

Bi kategoriatan banatuta egingo dute lehiaketa, 14 urte artekoentzat eta 14 urtetik gorakoentzat, eta argazkiak Belauntzako mugetan aterakoak izango dira.

‘Un beau matin’ filma izango da zine forum saioan

Erredakzioa Tolosa

Alzheimerren munduko egunaren harira, Tolosako zine klubak Buru Bihotzez elkartearekin elkarlanean saio berezia eskainiko du gaurko zine forumean. Hain zuzen *Un beau matin* filma izango da Leidorren, 20:30ean. Zortzi urteko alaba duen emakume bat aitarekin bizi da, gaixotasun neurodegeneratiboa baitu. Adinekoentzat etxe egoki bat lortzeko borrokan ari da.

Azokak egingo dituzte igandean Alegian, Asteasun eta Goiatzen

Artisau eta ekoizleen postuak jarriko dituzte herriko plazetan, igande goizean zehar; Asteasun, egun osoko festa egingo dute, herri kirol erakustaldi eta erromeriarekin

Irati Saizar Artola

Iraileko azken igandean eskualdeko hiru herritan egiten dute azoka berezia. Alegia, Asteasu eta Goiatz dira herri horiek eta eguraldi iragarpena ere ona denez, prest daude postuak jarri eta jai giroan eguna ospatzeko.

Asteasuko kasuan, egun osoko festa izango dute. Aurten, herrian eratu berri den Baserritarren Mahaia hartu du azokaren antolakuntza. Asteasuko Udalak, modu honetara, azoka indartu eta biziberritu nahi du, eta bestetik, herritarrei baserriko lanak eta nekazaritza eremuan ematen den errealitatea ikusarazi eta ezagutzera eman nahi die.

Antolatzaileek nabarmendu dutenez, azoka «indartu», eta igandean herriko postu gehiago egongo dira jarrita. Barazki eta fruta postuak egongo dira eta ganadu erakusketa egingo dute. 52 postu izango dira guztira eta 10:00etan zabalduko da azoka. Aurreratu dutenez, salmentari bideratutako postuak goizera mugatuko dituzte, 14:00ak arte. Goizean zehar, gainera, herriko kalabazen erakusketa egingo da

eta perratze lanak eta sega pika-tzeko lanak erakutsiko dituzte. Gainera, txekor erre pintxoak banatuko dira eta haurrentzako asto ibilaldiak eskainiko dituzte, Astrotek ekimenaren bitartez.


Ohiturazkoak diren beste hainbat ekitaldi ere berreskuratuko dituzte, eta 12:00etan, adibidez, arroz esne lehiaketaren sari banaketa ekitaldia egingo dute.

17:00etatik aurrera, jai giroko beste ekitaldi batzuk izango dira Asteasun. 17:00etatik 19:00etara herri kirol erakustaldia egingo da. Kasu honetan Zurgai taldearen eskutik joango da saioa eta hauek egurrez egindako materialekin egiten dituzte herri kirolak. Eguna amaitzeko, 18:30ak aldera, Jone eta Juleneren esku-tik erromeria izango da.

INOIZKO PARTE HARTZAILEENA

Inoiz baino postu gehiago izango ditu aurtengo Alegiako azokak. Igandean izango da, 11:00etatik 14:00etara, eta 30 postu inguru jarriko dituzte, barazki, pintxo, postre, kosmetika, artisau, poltsa... denetariko postuak izango dira.

Andrea Larrañaga zinegotziak



Ganadu erakusketa egingo dute, aurten ere, Asteasuko azokan. I.U.

esan duenez, «festa giroan» ospatu nahi dute goiza. Orain arte plazan eta taxi geltoki inguruan egiten zuten azoka, baina aurten postu gehiago izango direnez, Kalebehera aldera luzatuko dute. Beraz, autoentzako pasabidea moztuko dute.

AZOKA, SARDINA ETA GUZTI

Kultur astearen barruan kokatu dute Bidania-Goiazko azoka eguna. 11:30ean zabalduko dute azoka eta besteak beste, hamar postu inguru jarriko dituzte, Goiazko plazan. Balerdipeco erleak, Berroeta ogia eta gazta, Ez

da bide txarra eta Felix Munduan modako arropak, Izaskun Iraola jostuna, Natalia metalezko artisautza, Sojonatura kosmetika, Sualmna egurrezko jostailuak eta herritarrek jarritako postuek hartuko dute lekua plazan.

Herritarrek jarritako postu horretan, barazkiak edota etxeko postreak jarriko dituzte salgai, eta lortutako dirua Kukuri kultur taldeak erabiliko du, herritarrentzat edozein ikastaro prestatzeko.

Azokak irauten duen bitartean, sardina erreak eta taloak das-

AZOKAK

ALEGIA

11:00-14:00. 30 artisau eta nekazal postu inguru, plazan eta kalebeheran.

ASTEASU

10:00. Azoka eta ganadu erakusketarekita.

11:00. Txekor erre pintxoak.

11:00. Haurrentzako asto ibilaldiak, Astrotekekin.

12:00. Arroz-esne lehiaketaren sari banaketa.

17:00-19:00. Zurgai herri kirol taldearen erakustaldia.

18:30. Erromeria: Jone eta Julene.

BIDANIA-GOIAZ

11:30-14:30. Ekoizle, artisau eta jostunen hamar postu inguru. Sardina erreak eta taloak, txakolina eta sagardoarekin. Giroa alaitzen, Alaitz Aramendi eta Garazi Zubizarreta trikitilariak.

tatzeko aukera egongo da, txakolina eta sagardoaren laguntzaz. Musika zuzenean jotzen ariko dira Alaitz Aramendi eta Garazi Zubizarreta trikitilariak.

Kultur astea ospatzen, Bidania-Goiatzen

‘Kanpora sartzen’ antzezlanak ikusteko aukera izango da, bihar, 19:30ean, eskolan; igandeko azokarekin amaituko dute astea

I.S.A. Bidania-Goiatz

Asteartean eman zioten hasiera XXXII. Kultur asteari, Bidania-Goiatzen. Igandera bitarte luzatuko dituzte askotariko ekintzak eta azoka egunarekin amaituko dute egitaraua.

Asteartean, eskolako haurrak eguneko zentzura joan ziren eta hanga erabiltzaileekin eskulana egin zituzten. Jarraian, txokolateta jateko tarte hartu zuten.

Bihar, berri, Xabin Fernandezek eta Intza Alkainek *Kanpora sartzen* antzezlanak eskainiko

dute 19:30ean, eskolan. Lehen pertsona idatzitako istorioa da: Fernandezek 2013an jakin zuen seropositiboa zela eta hamar urte beranduago bera eta birusaren arteko harremanaz hitz egitera dator.

Egun bete dator larunbatekoa. Lokaleko gazteek haur, gazte zein helduentzako *Erronka* prestatu dute, jolasen bidez egindako lehiaketa bat antolatuz. 10:00etan izango da. Arratsaldean, 16:00etan, bizikleta zirkuitua jarriko dute etxeko txikientzat frontoian.

Bizikleta izango da arratsaldeko protagonista, 18:00etan Bikeshow Trial erakustaldia egingo dutelako Irene Caminos eta Javi Alonsok, frontoian.

Afaria egingo dute ondoren eskolan, 20:00ak aldera. Norberak bere jatekoa eman beharko duela zehaztu du Maialen Irazusta zinegotziak eta edaria bertan egongo dela. Gaua luzatuko dute, Alurr dantza taldeak eskainiko duen Laia ikuskizunarekin. 21:45ean izango da, frontoian.

Igandean, azoka egingo dute, Goiatzen, 11:30etik 14:30era.



Eguneko zentroan eskulanak egin zituzten gaztetxoek, asteartean. ATARIA



Pablo Dendaluzek eta Iker Iriartek grabatu dituzte 'Auzolangiltza' dokumentalerako irudiak; argazkian, auzolan praktika bat grabatzen. ATARIA

Auzolana, etorkizuneko gizartearen giltza

‘Auzolangiltza’ dokumentala aurrestreinatuko dute, hilaren 27an, Topic-en; estreinaldi ofiziala urriaren 5an izango da, Alegiako zineman

Irati Saizar Artola

Auzolanaren iragana, oraina eta etorkizunari buruzko Auzolangiltza proiektu praktikoa jarri zen martxan Tolosaldean, 2021ean. Eskualdeko eragileekin egindako hainbat hausnarketa saio eta praktikaren ondoren, dokumental bat ondu dute, gida praktikoa batekin batera. Iker Iriartek eta Pablo Dendaluzek egin dute *Auzolangiltza* dokumentala eta Agurtzane Belaunzaran arduratu da gida praktikoa egiteaz. Hilaren 27an, Topic-en

egingo dute dokumentalaren aurrestreinaldia, 19:00etan, eta estreinaldi ofiziala urriaren 5an izango da, 19:00etan, Alegiako zineman.

Tolomendi Landa Garapen elkarteak, Mondragon Unibertsitateak eta Eusko Ikaskuntzak martxan jarritako proiektua da honakoa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz programaren baitan egin dutena.

Denbora tarte honetan, auzolana nola ulertzen ote den landu dute herritarrekin, elkarteetako

kide, zein udalekin, hausnarketa saio batzuk eginez, eta hortik abiatuta praktika bat egitea izan dute helburu. Urkizuko Dama Iturri ingurua txukundu zuten, iazko udan, auzolanean, herritarrek, Zumardia elkarteak, Tolosako auzolandegietako gaztetxoek eta Tolosako Udalak. Auzolaneko praktika bat antolatzerako orduan sortzen diren zailtza eta zailtasunak identifikatu zituzten, eta aldi berean, horrelako praktika bat antolatzerakoan jarraitu beharreko pausoak modu praktikoa batean ematen

saiatu ziren. Ibilbidea garbitu eta markatu egin zuten, eta atsedenekuan mahai berriak jarri eta ingurunea txukundu zuten. Hortik ateratako ikasbideekin gida praktikoa osatu dute. Hala ere, gogorarazi nahi izan dute auzolana ez dela soilik baserri bideak garbitzea edo ondarea berreskuratzea, baizik eta hainbat festa edo kultur jarduera antolatzea, esaterako, auzolana dela.

Emaizta modura dokumentala eta gida praktikoa kaleratuta, badirudi proiektuaren amaiera datorrela, baina Imanol Olano

Tolomendiko teknikariak esan duenez, «proiektua hemen bukatu baino, hasi egiten da».

Auzolana etorkizuneko giltza izan ote daitekeen aztertzen ari-

«Auzolanaren kultura antolakuntza sozial bat da, ez bakarrik bildu eta lankidetzat egitea»

IMANOL OLANO
TOLOMENDIKO TEKNIKARIA

«Izen batekin edo bestearekin, baina mundu guztian egiten den zerbait da auzolana»

IKER IRIARTE
DOKUMENTALGILEA

tu dira denbora honetan. «Sineten badugu auzolana badela etorkizuneko komunitatearen giltzarria, guztia administrazioaren esku uztea ez da jasagarria», esan du. «Oraindik auzolana bizirik dagoen praktika bat izanik, komunitatea edo herria egiteko auzolana bezalako tresnak etorkizunera begira oso interesgarriak izan daitezke». Horren inguruan esperimentatzea eta hausnarketarako tresna bat izatea izan du helburu proiektuak.

DOKUMENTALA PREST

Egindako lan hori herritarrengana zabaltzeko sortu dituzte dokumentala eta gida praktikoa. 45 minutu inguruko ikus-entzunezkoa ekoitzi dute Iker Iriartek eta Pablo Dendaluzek, *Auzolangiltza* izenarekin. Datorren astean, asteazkenean aurrestreinaldia egingo dute Topic-en, 19:00etan, proiektuan zuzenean parte hartu duten protagonistak gonbidatuz. Estreinaldi ofiziala ordea, urriaren 5an izango da, 19:00etan, Alegiako zineman. Publiko guztiarentzat zabalik izango da.

Iriartek kontatu du dokumentalean hiru alor biltzen saiatu direla: iragana, oraina eta etorkizuna. «Batetik, tradiziozko auzolanean jarri dugu begirada, Euskal Herrian nolako izan den, zer egiten zen, zer garrantzia izan duen gauza materialetan zein immaterialetan; bestetik, gaur egun egiten diren auzolan jarduerak jasotzen saiatu gara, gure ingurukoak, zein Espainiakoak, eta Marokon ere izan gara testigantza ezberdinak jasotzen. Azkenik, etorkizunerako pista batzuk ematen saiatu gara, lagungarri izan daitezkeen intuizio batzuk azaltzen».

Irudi guztiak beraiek grabatu



Berastegin egin zuten proiektua aurkezteko lehen saioa, 2021ean. I.S.A.



Auzolangintzaz hausnartzeko egindako saioa, Alkizako Ur Maran, 2022an. I.T.

dituzte eta Jesus Elosegiren argazkiak txertatu dituzte, baita ere. «Jolas moduko batzuk egiten saiatu gara, garai bateko auzolana nolakoa izan zitekeen irudikatuz», azaldu du Iriartek. Kontatu du Jasone Mitxelorenak idatzitako *Auzolanaren kultura* liburutik hartu dituztela dokumentalerako zenbait pista, baina, gainerakoan auzolanaren inguruko bideo testigantzarik ez dutela lortu.

Testigantzak jaso dituzte ikus-entzunezkoan, «ahalik eta esparru zabalena hartuz». «Testigantza batzuk teorikoagoak dira, baina testigantza praktikoak ere sartu ditugu, lehenago auzolanean jarduten zuten gizon eta emakumeenak eta gaur egun ere jarduten dutenenak». Auzolan praktika ezberdinak ere bai. Etxalar, Zumaia, Amurrio, Avila edota Marokoko esperientziak jaso dituzte, auzolana han eta hemen nolakoa den azaltzeko.

Olanok dio auzolanaren kultura «mundu ikuskera» bat dela, «antolakuntza sozial bat, ez bakarrik bildu eta lankidetzat egitea behar bati erantzuteko». Iriartek gehitu du auzolana «oso hemengo jarduera» iruditu izan dela, baina arakutzen hasi direnean ikusi dutela «forma batera

edo bestera eta izen batekin edo bestearekin, mundu guztian egiten den zerbait» dela.

Bi auzolan mota bereizi ditu Iriartek: auzolan programatua eta auzolan inprobisatua. «Auzolan programatua behar zehatz bati erantzuteko komunitate batek ematen dion erantzun konkretua izan daiteke, eta auzolan inprobisatua, esaterako, Marokon egiten ari direna izan daiteke, gertatu den desastre natural horri buelta emateko, hau da, bat-bateko erantzuna behar da batzuetan».

ESKUALDETIK HARAGO

Auzolangintza proiektua Tolosaldean garatu badute ere, sortutako produktuak, dokumentala eta gida praktikoa, eskualdetik harago ere zabaldu nahiko lituzkete eta denentzat eskuragarri egotea nahi dute.

Behin estreinaldia eginda, udazkenean hasi eta udaberrira bitarte ikastetxe eta herrietara joan nahi dute, dokumentala erakutsiz solasaldi eta hausnarketarako espazioak sortzera. «Tolosaldetik abiatutako dokumentala da, baina ikuspegi nazional bat ematen saiatu gara, gehiago zabaltzeko», dio Iriartek.

«Auzolan bat egiteko zer egin behar genukeen zehazten digu»

AGURTZANE BELAUNZARAN GIDA PRAKTIKOAREN EGILEA

Auzolangiltza proiektuaren baitan, gida praktikoa kaleratu dute, auzolana egin nahi duen edonorentzat lagungarri izateko eta egin beharreko pausoak zehazteko

I.S.A.

«Denek ulertzeko moduan» idatzi du auzolanaren inguruko gida praktikoa Agurtzane Belaunzaran berrobitarrak. Dokumentalarekin batera, prest izango da gida, edonorentzat.

Zer da bertan bildu duzuna?

Dokumentu teoriko baten baitatik atera dut gida praktikoa. Kapitulu ezberdinak ditu. Auzolana zer den gaur egun eta zer zen lehen azaltzen da, nola transformatu den. Gaur egun hartu duen ikuskera hori aipatzen da lehen kapituluaren eta legediari eskaintzen zaio hurrengo. Finean, auzolana antolatu nahi duen edonorentzat prestatu dugun gida bat da, eman daitezkeen pausoen inguruko informazioa eskaintzen duena.

Auzolanak ba al du legedirik?

Gaur egun guztia arautzen da, eta auzolana arautzeko bideak eta aukerak badaude. Auzolanak modu seguruan egiteko pausoak finkatzen dira, aseguruak bezalako gaiak aipatuz. Auzolana arautu daiteke edo ez, bideak badaude arautzeko eta gidan hori azaltzen da, auzolana martxan jartzera doanak jakin dezan legeak babestu ahal duela eta bermatzen duela auzolan seguru bat egitea.

Zedokumentu teorikotan oinarritu zara?

Hausnarketa saio batzuk egin dira aurretik eta Huezik eta Eusko Ikaskuntzak hartu dute parte informazioa biltzen. Tolomenditik dokumentu bat pasa zidaten, oso akademikoa, eta hori herrira jaisten saiatu naiz. Hainbat praktiketako bideoak ikusiz informazioa atera dut, eta horren harira egin dut gida, izan dadin erabil-

garria eta edozein herritarrek ulertzeko modukoa; uler dezan Berastegiko edozein herritarrek eta uler dezan udaletzeko teknikariak.

Publiko zabalarentzat dago prestatuta, beraz?

Hori da helburua. Gida praktikoa hau udalerrri guztietan egongo da eta edonork irakurri eta erabili ahalko du. Erraz irakurtzeko eta ulertzeko zerbait da.

Formatu fisikoan badago?

Bai, eskuorri modukoak izango dira eta pdf formatuan ere izango da eskuragarri.

Horrelako gida batek ze ekarpen egiten dio eskualdeari?

Dokumentalarekin eta gida praktikoa honekin auzolana egiteko txispa hori ekar lekiok edonori. Gida praktikoa badu beste kapitulu bat dekalogo moduan aurkeztu dena. Auzolana egiteko hamar pauso aipatzen dira, eta horietako bat da auzolangilearen figurari balioa ematea. Askotan, auzolana egiten da eta ez da eskertzen; agian, hamaiketako bat ematen zaio lana egin duenari, baina publikoki jende horri eskertzea ere garrantzitsua



Chromak diseinatu du gida. CHROMA

da. Azpimarratu nahi da auzolana egiten denean, komunitate guztiarentzat onura dakarrela auzolan horrek.

Figura hori ikusarazi nahi duzue?

Hausnarketarako bideak irekitzen ditu, nola egin auzolan bat erakargarri eta nola sentiarazi auzolana egingo ez duen horri, beste batzuk bere mesedetan ari direla borondatez lanean. Niri, esaterako, pertsonalki ekarpen hori egin dit gida praktikoa. Adibide bat jartzearen, odol emaileen figurak balio handia du, eta odol emailea izango da, baina beste auzolangilea da, eta berak ere egiten dio on komunitateari, auzoari edo herriari. Estatutua moral hori irabaztea nahiko genuke auzolangileak.

Nola egin auzolan bat egoki?

Auzolana betidanik egin duenak badaki nola egin, baina zalantza txiki bat duenarentzat baliagarri izan daiteke.

Tolosaldera mugatutako gida da?

Edozein lekutarako balio du. Toki batean eta bestean auzolana egiterakoan berdin funtzionatzen dugu. Gida hau, eskualdetik kanpora, Bizkaira, Nafarroara edota Avilako herri batera eramane daiteke.

Zein hizkuntzatan egin duzu?

Euskaraz eta gaztelaraz dago eginda, eskualdeko muga horiek gainditzeko moduko zerbait delako.



Mendi bizikletaren elkargune izango da Amasa-Villabona

Irrintzi Elkartek antolatuta, V. Amasa-Villabona BTT Martxa egingo dute, larunbatean, 09:00etan hasita; bi ibilbide egongo dira, 38 eta 28 kilometrokoak

J.A.D. Amasa-Villabona

Larunbat honetan, irailak 23, mendi bizikletaren zaleek, hitzordu handia dute Amasa-Villabonan. Bosgarren aldiz, mendi bizikleta martxa antolatu baitu Irrintzi Elkartek. Errebote plazan izango da artea 09:00etan, eta leku berean amaituko dute txirrindulariek. Helmugarako, baina, ordu muga bat ezarriko dute; 14:00ak baino lehen iritsi beharko dute parte hartzaileek. Borja Aranzabe Irrintzikideak aurreratu duenez, martxa bat denez, ez dute denborarik hartuko, hau da, ez da lehiaketarik egongo. «Mendi bizikletaren festa bat egitea da helburua, zaletasuna bultzatzea, eta ez bizikletan ahalik eta azkarren ibili eta helmugara lehenbailehen iristea».

Bi ibilbide egongo dira aukerak: luzea, 38 kilometrokoa, 1.300 metroko desnibel positiboarekin, eta motza, 28 kilometrokoa, 1.000 metroko desnibel positiboarekin. «Ibilbide politak dira, parte hartzaile guztiek gozatzeko modukoak. Mendi bizikletan hasiberriak diren horientzat oso egokia izan daiteke, baina forman egotea exijitzen du. Beste edizioetan izan dira sufritu izan dutenak, eta beraz, aurrez mendi bizikletan ibili izan denak gehiago gozatzen du. Ezinbeste-



200 lagun inguru izan ziren Amasa-Villabona BTT Martxaren iazko edizioan. A.I.

koa da bizikleta bera ere ondo prestatuta eramatea eta gertatu daitezkeen matxurak konpontzeko prest egotea».

Orain arteko edizioetan parte hartzaile aldetik erantzun ona izan dutela adierazi du Aranzabek; iaz, esaterako, 200 lagunek parte hartu zuten. Aurten, ordea, gehiago kostatzen ari zaiela aitortu du. «Ez dakigu zein den arrazoia, akaso, beste herri batzuetan ere martxak antolatzen dituztelako. Hala ere, gehienek azken astean ematen dute izena, eguraldi iragarpenaren zain egoten direlako». Dorsalak egunean bertan banatuko dituzte Errebote plazan, 08:00etatik aurrera. «Izen ematea gehienezko kopu-

rura heltzen ez bada, egunean bertan izena emateko aukera ere egoten da. Hala ere, horrek eragina izaten du antolakuntzan, aurreikuspenekin jokatzeko eskatzen duelako, eta erabakiak hartzea zailagoa delako».

Izen ematearen erritmoa apala izaten ari bada ere, mendiko bizikletarako zaletasuna geroz eta handiagoa dela nabarmendu du Aranzabek: «Jende gehiago dabil, teknologia aldetik erraztasunak handiagoak dira, eta mendiko bideetan ibiltzeko prestatutako bizikleta gehiago daude, baita elektrikoak ere. Hemen, gainera, aldapa asko, luzeak eta gogorrak ditugu, eta horrek aukera handiagoa ematen du».

Eskualdeko lau pilotari, Lau eta Erdiko Txapelketan

Baikok aurreratu du Peña II.ak, Artolak eta Jakak jokatu dutela, eta ezusterik ezean, Altuna III.a ere bertan izango da

J.A.D.

Udazkenean sartzearekin batera, eta udako torneoak amaitzen doazen honetan, pilotariak Lau eta Erdiko Txapelketarako prestatzen ari dira. Aurten, urriaren 6an hasiko da, eta finala azaroan jokatu dute.

Baiko Pilota enpresak dagoeneko baieztatu du txapelketan zein sei pilotarik parte hartuko duten, eta horien artean daude Iñaki Artola alegiarra, Jon Ander Peña tolosarra eta Erik Jaka lizartzarra. Urrutikoetxea eta Larrazabal ere txapelketan ariko dira, eta azken pilotaria Agirrek eta Zubizarreta III.ak jokatu dute aurre-kanporaketan erabakiko da. Partida hori irailaren 30ean, larunbata, jokatu dute Itziar (Deba) Zabalsoro pilotalekuan.

Egun berean izango da Aspeko bi pilotariren arteko aurre-kanporaketa, eskualdean. Elezkano II.ak eta Dariok Tolosako Beotibar pilotalekuan jokatu dute; 17:15ean hasiko da jaialdia eta bigarren partida izango da. Lehen partidaren, Salaberriak eta Erosarbak, Expositoren eta Tolosaren aurka jokatu dute. Bi jaialdietako sarrerak dagoeneko salgai daude Entradasfronton.com webgunean. Beotibarkoen kasuan, merkeenek 10 euro balio dute eta garestienek 25 euro.

Eibarko enpresak oraingoz ez du txapelketan parte hartuko duten pilotarien zerrenda argitaratu, baina ezusteko erraldoirik ezean, Jokin Altuna amezketarra, iazko txapeldunordea (22-21 galdu zuen finala Ezkurdiaren aurka), zerrenda horretan egongo da.

Urriaren 21ean izango da VII. Eltxotrail mendi lasterketa

ORENDAIN // Orendaingo Eltxotrail mendi lasterketaren zazpi-garren edizioak badu data: urriaren 21ean izango da. Beti bezala, bi proba egongo dira: luzea, 21 kilometrokoa (15:30), eta motza, 7,3 kilometrokoa (16:00). Jada eman daiteke izena (afaria barne) Eltxotrail.com webgunean, urriaren 20a baino lehen.

Tolosako XXXV. Herri-Krosa proban izena emateko aukera

TOLOSA // Urtero bezala, urriaren 12an jokatu da San Esteban auzoan, Tolosako Herri-Krosa (8,1 kilometro), 11:00etan hasita; aurtengoa 35. edizioa izango da. Kronoak.com webgunean egin daiteke izen ematea, urriaren 11 baino lehen. Egun horretan, Shanti Kirolak denda banatuko dituzte dorsalak.

Hilberriak eta urteurrenak



**Mikel Otaegi
Azurmendi**

Ez adiorik adiskide, gero arte baizik.



LAB-CAF Sail Sindikala

BEASAINen, 2023ko irailaren 21ean.

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943 65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu

«Aurreikuspen bat izan arren, edozer gauza gertatu daiteke»

PATXI PLAZAOLA TXIRRINDULARIA

Orendaindarrak 770 kilometro eta 15.000 metro aldapa gora dituen Badlands proba egin du, Almeria eta Granadan zehar; ultra distantziako bere laugarren proba izan da

Imanol Garcia Landa Orendain

Beste abentura bat burutu du Patxi Plazaola (Orendain, 1990) txirrindulariak. Oraingoan Andaluzian izan da, Badlands izeneko ultra distantzia proba eginez, irailaren hasieran. Bosgarren postuan amaitu zuen, 42 ordu eta erdi luzez bizikleta gainean aritu ondoren.

Nolakoa da Badlands proba?

Ultra txirrindularitzako proba bat da, gravel bizikletarekin egiten dena. Granada eta Almeria aldetik da, 770 kilometro ingurukoa eta 15.000 metro aldapa gora ditu, baina egun horietan euriteak aurreikusita zeuden, eta ibilbidea pixka bat aldatu ziguten, urak eremu batzuk hartu zitzaizkeelako. Beraz, 20 bat kilometro moztu zuten ibilbidea.

Zenbat parte hartzaile izan zirenen?

300 txirrindulari izan ginen, 250 baino gehiago bakarka eta 40 bat binaka. Ultra distantzian sortu zen aurrenetakoa izan zen, eta lehenengo urtean parte hartze ona izan zen, tartean txirrindulari profesional bat. Fama hartu

zuen, erreferente bat bihurtu da, eta izen emateak berehala bukatzen dira.

Bosgarren egin zenuen. Postu hori espero al zenuen?

Gauzak ondo joanez gero, hamargarren postuaren inguruan ibiliko nintzela pentsatzen nuen. Baina lasterketa hauetan denetarik gertatu daiteke, eta nik ere izan nituen nire arazoak. Zuk aurreikuspen bat izan arren, edozer gertatu daiteke; adibidez, eskarmentu handiko jendea erretiratu egin zen.

Ultra distantzia izateaz gain, proba hauek autosufizientziaren berezitasuna dute.

Azkenean filosofia da zuk daukazula irteera bat eta bukaera bat, GPS dispositibo bat antolakuntzakoei jakiteko non zauden, eta edozein egunetan egin dezakezuna egin dezakezu, baina laguntzarik jaso gabe. Ahal duzu hotel batean lo egin, jatetxe batean bazkaldu, supermerkatu batera sartu eta zerbeit erosi, baina ezin duzu aurretik erreserbarik egin.

Nola izan zen hasiera?

Gorafeko desertua pasatzen da,

ondoren Tabernaseko desertua, gero Cabo de Gata aldera joaten zara, eta kosta aldetik Almeria zeharkatu, azkenik Granadako Alpujarras eremuan bukatzeko. Ustez lehen egunean euria egin behar zuen, baina esnatu ginean ez zuen ari. Ni euritakoa jantzita atera nintzen, eta ez zen erabaki onena izan, lehen lau orduetan ez zuelako euririk egin. Baina gero Gorafe aldera iristen zaparrada indartsu batzuk izan genituen.

Hasieran talde batean nindotan, nahiko bizi, baina ehungarren kilometro inguruan luzatzen hasi zen. Nabigatzailearekin akats bat izan nuen, galdu egin nintzen eta eroriko bat ere izan nuen, baina ez zen gauza handirik izan. Hiru elkartu ginen, beno, gertu gindoazen, proba honetan ezin duzulako inoren gurpilean joan. Seiak inguruan nahiko ikonikoa den herri batera iritsi ginen, Gor izenekoa. Herria eta bertako taberna prest egoten dira, ez zaizkielako gosez dauden hirurehun txirrindulari egunero bertatik pasatzen.

Zergatik da leku hori berezia?

Esan daiteke bertan bai edo bai geratu behar izaten dela. Iluntze aldera iristen zara eta gero hortik aurrera 90 kilometrotan ez daukazu ezer, ez herririk ez iturrik. Hori pasa eta Filabres mendikatea igaro behar duzu. Bi mila metrora igotzen zara kilometro pila bat eginez eta gero beste kilometro ugari egiten dituzu behe-rantz, eta ez dago ezer. Aurten, gainera, ilundu eta berehala sekulako ekaitza hasi zuen: tximistak, haizea... Ni beste batekin nindotan eta aurrera egitea erabaki genuen. Beste mutil bat bel-durtuta geratu zen zuhaixka baten azpian, tximista batek gertu jo eta gero. Zaila izan zen, hotz handia egiten zuelako. Azken 20 kilometroko jaitsiera egin aurretik, arropa dezente jantzi nuen, eta bete-betea asmatu nuen. Lau txirrindulari batera jaitsi ginen, eta beste hirurak ia hotzez akabatzen zeuden, eta ni goxogoxo joan nintzen.

Nola jarraitu zenuen proba?

Gauetz aurrera egin genuen lasai, Tabernaseko desertua pasa genuen eta portu luze batzuk, eta goizeko lehen argiak Cabo de Ga-

tatik gindoazela atera ziren. Proba hauek ez dira oso ezagunak, baina anekdota berezi bat gertatu zitzaidan: malda bat igotzen ari nintzela, ezerezaren erdian, etxe bat zegoen eta bertatik entzun nuen «Animo Patxi!» esaten. Goizeko laurak ziren. Pentsatu nuen antolakuntzakoren bat izango zela. Iritsi nintzen eta etxe aurrean geratu; bertan bizi zen pertsona bat zen, bere mugikorrarekin jarraitzen ari zen proba Internetez, eta ordu horretan ere bere etxe aurrera ateratzen zen jendea animatzera. Ikaragarria iruditu zitzaidan, eta benetan eskertu nuen.

Behin Almeriako probintzia pasata Granadako iritsi zen, eta gogorrera geratzen zen. Berrehun bat kilometrotan desnibelaren erdia egiten genuen, aldapa handi eta gogorrekin.

Nola bukatu zenuen proba?

Bigarren eguna nahiko ondo joan zen, baina iluntze aldera aldagailuaren heldulekua ez zegoen ondo. Haririk gabekoa da eta pilak ez zuen ondo egiten. GPSa ere gaizki jarri zen, eta aldapa behera bat ez zidan ondo markatzen. Ordubete aritu nintzen probatzen eta azkenean antolakuntzakoei deitu nien. Orduan errepide bat hartzeko esan zidaten, eta gero sartuko nintzela berriro ibilbidean. Gero aldagailuaren atzeko bateria gastatu egin zen, eta hartu nuen ordezkua dirudienez galdu egin nuen. Kargagailu bat banuen eta powerbank bat, eta horrekin hasi nintzen kargatzen. Baina hor pare bat postu galdu nituen. 30 kilometro falta zitzaizkidan, eta GPSa kale egiten hasi zen. Azkenean kilometro gehiago egin nituen eta sufrituta, baina iritsi ginen helmugara.

Gisa horretako zenbat proba egin dituzu?

Laugarrena izan da eta bi bukatu ditut. Aurten ez ditut horrelako gehiago egingo, baina datorren urtean ziurrenik besteren bat egingo dut.



@THECYCLINGCULTURE

San Migel Xare Irekien finalerdia, bihar

Erredakzioa Irura

San Migel Xare Irekien finalerdia jokatuko dituzte bihar, 19:00etan hasita, Irurako Ametsa trinketeen. III. Gazteak mailako finalerdia Unai Telletxea eta Oier Iturbe bikoak, Matxalen Mendizabal eta Markel Mujika bikoaren kontra jokatu behar zu-

ten, baina Matxalen Mendizabal ez da osatu ligaxkako partida batean izandako lesiotik, eta bere ordezkoa nor izango den oraindik erabaki gabe du Ametsa Pilota Elkartek.

Nagusien mailako V. San Migel Xare Irekiko finalerdia, berriaz, Joxi Lopetegui eta Joel Sistiage bikoak eta Jon Larronde eta Se-

bas Moncada bikoaren artekoa izango da. Joel Sistiagek Andoni Casteraren ordezkia jokatu du; larunbatean Frantzia-Espainia partida bat jokatu du, Castera Frantziarekin jokatzeko hautatua izan da, eta Frantziako hautatzaileak ez dio utzi biharko partida jokatzeko. Lopetegiren bikotekide berria, Joel Sistiage, pi-

lotari desberdina da; Castera gaztea eta kementsua da, eta Sistiage helduagoa eta eskarmentu handiagokoa. Joxirentzat ordezkio bikotekide ona izango dela diote antolatzaileek.

Hala ere, partida irekita dagoela eta ez dela faborito argirik izango gaineratu dute. Ondorioz, partida parekatua eta ikus-

garria izatea espero da, Larrondek eta Moncadak bikote bikaina osatzeaz gain, ligaxkako azken partidari, ongi baino hobeto erakutsi zutelako edozeini irabazteko gai direla. «Hortaz, baldintza guztiak ematen dira xare partida ikusgarri bat izateko», azaldu dute Ametsa Pilota Elkartetik.



OSTEGUNA, 2023KO IRAILAK 21
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



BABESTUTAKO EDUKIA

Mende erdia ikasleak hizkuntzetan trebatzen

Elduaiei Hizkuntza Eskolak Gipuzkoan 11 akademia ditu, horietako lau Tolosaldean, hiru Tolosan eta bat Villabonan; arreta pertsonalizatua bermatzen dute

Berrogeita hamar urte betetzen ditu aurtien Elduaiei Hizkuntza Eskolak. Tolosan sortu zuten 1973. urtean, eta orduz geroztik, pixkana zabaldu du bere eskaintza, egoitzak eta ikasi daitezkeen hizkuntza eta ziurtagiriaren sorta handituz.

Gaur egun 11 akademia ditu Gipuzkoan; hiruna Tolosan eta Donostian, eta baina Villabonan, Lasarten, Irunen, Beasainen eta Andoainen.

ELDUAIENEN IBILBIDEA

Hizkuntza eskolak zehazki, 1970. urtean hasi zuen ibilbidea, gaur egun zuzendaria den Joxe Mari Elduaiei eskutik. «Garai hartan, bera izan zen etorkizunean hizkuntzak jakiteak izango zuen garrantziaz jabetu zen lehenengoetakoa eta handik aurrera, bere asmo nagusia bihurtu zen hizkuntza hezkuntza ahalik eta jende gehienaren eskura jartzea»,

esan dute eskolako arduradunek.

Lehen eskolak bere etxean ematen zituen eta 1986. urtean ireki zuen Tolosako Nafarroa Etorbideko akademia. Ordutik ikasle kopuruak etengabe egin du gora eta akademiak irekitzen joan dira, beharren arabera.

Ikasturte berria hasi dute jada eta horren zabaldua dauden ingeles, aleman edo frantses eskolak eskaintzen dituzte. Baina ez bakarrik; lan kontuak direla eta edota interesa pizten duela geroz eta gehiago dira txinera, korearra edo japoniera ikasi nahi dutenak, eta horiek ikasi daitezke Elduaiei. Gaztelania eta euskara ikasteko aukera ere eskaintzen dute.

CAMBRIDGE PARTNERSHIP

Ingelesa da jaun eta jabe, oraindik ere, eta hori dela eta Cambridge Partnership egitasmoa abiatu du Elduaiek Cambridge



Tolosako Kondeaneko Aldapako egoitzan 22 ikasgela dituzte. ELDUAIEN

ESKAINNTZA

Hizkuntzak. Ingelesa, italiara, alemana, frantsesa, portugesa, txinera, euskara eta gaztelania.

Beste batzuk. Arabiera, errusiera, japoniera, nederlandera, koreera, bulgariera, daniera, eslovakiera, finlandiera, grekoa, hungaria, kroaziera, norvegiera, poloniera, suediera edo turkiera.

Bestelako zerbitzuak.

Hizkuntza aholkularitza eta itzulpena zein interpretazioa.

Enpresa zein eskoletan klaseak emateko aukera.

Ziurtagiri ofizialak.

ESKUALDEKO AKADEMIAK.

– Tolosa: Kondeaneko Aldapa, 30 (666 58 40 18), Martin Jose Iraola 8, 3–ezkerra (943 67 00 52) eta Nafarroa etorbidea 12 (666 58 40 18).

– Villabona: Kale Berria, 14, behe (666 55 82 40).

Informazio gehiago. Elduaiei.com.

University Press & Assessment erakundearekin batera. Hain justu, ingelesezko ziurtagiri nagusiak ematen dituen erakundea da eta horrela lortzen dute Cambridgeko azterketa ofizialeko maila guztietako azterketak egitea. Ez dira dituzten azterketa ofizial bakarrik, baina horiek dira nagusiak.

Proiektu horri lotuta egoteak ikasleei hizkuntzan gehiago murgiltzeko eta hobeto ikasteko aukera ematen die eta Elduaiei berrikuntzaren etengabeko formakuntzaren alde egiten duten apustuaren erakusle da. Izan ere, *partnership*-ari lotuta daudenez metodologia egokitu behar dute, beti ere, hobetzeko eta ikasleak trebatzeko egindako apustuaren barruan. «Lehendik dugun zerbitzua osoago izatea ahalbidetzen du». Eta horrek bermatzen

die ikasleei hain justu, ziurtagiri ofizialak eskuratzea.

ESKOLAK IKASTETXEETAN EDO ENPRESETAN

Elduaiei dituen 11 akademiei esker ikasleek gertu sentitzen dute eskola, baina bertako irakasleak ikasleengana ere gerturaten dira.

Eskola batzuekin dituzten hitzarmenei esker eskoletara joaten dira edota enpresa batzuetara eskolak eskaintzera, eta itzulpen zerbitzua dute, era berean. Elduaiei Hizkuntza Eskolak profesional kualifikatuak ditu eta horrek bermatzen die ikasleen beharrei erantzuteko aukera izatea. Horretarako Elduaiei bere irakasleei etengabeko prestakuntza eskaintzen die aldiro antolatzen dituen formakuntza jardueren bitartez.

Bizi dezagun batera Ikaskuntzaren
abentura ELDUAIEN-en, matrikulak
irekita!



www.elduaiei.com

ANDOAIN

BEASAIN

DONOSTIA (2)

IRUN

LASARTE ORIA

TOLOSA (3)

VILLABONA